

SAN KRISTOBALGO HILERRIAREN BARNE ARAUDIA

**Udalbatzarrak 1991ko azaroaren 11ean onartua
Udalbatzarrak 1992/10/23 - 1995/05/12 - 2009/02/05ean aldatua**

I.-XEDAPEN OROKORRAK

- 1.- Kokalekua
- 2.- Ezaugarriak
- 3.- Jabetza
- 4.- Erantzukizunak
- 5.- Organo Kudeatzailea

II.-ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA, "GORPUEN OSASUN-ZAINGOAREN ARAUDIA"REN ARABERA

- 1.- Definizioak (gorpua, gorpuzkia)
- 2.- Hobiratzea
- 3.- Hobitik ateratzea eta berriro hobiratzea
- 4.- Gorpuzkien garbiketa

III.-ZERBITZU OSAGARRIAK

- 1.- Gorputegia
- 2.- Autopsia gela
- 3.- Kolunbarioa
- 4.- Kapera

IV.- BARNE ARAUDIA

- 1.- Zuzendaritza eta Administrazioa
- 2.- Jakinarazpenak
- 3.- Epeak

V.- EHORZKETA ESKUBIDEAK

- 1.-Ehorzketa erabiltzeko eskubide iraunkorra
- 2.-Ehorzketa erabiltzeko aldi baterako eskubidea
- 3.-Ehorzketa erabiltzeko eskubide amankomuna

- 4.- Adjudikazioak
- 5.- Tasak

VI.-TRANSMISIOAK

- 1.- Herentziazko oinordetza

VII.-ERREGISTROA ETA DOKUMENTAZIOA

VIII.-HILERRIKO LANGILEAK

- 1.- Giltzazain-Lurperatzailea
- 2.- Giltzazain-Lurperatzailearen laguntzaileak

IX.-HILETETARAKO ENPRESAK

- 1.- Jarduera eremua

X.-HILARRIAK

- 1.- Ezaugarriak
 - a) Hilobiratze eskubide iraunkorra
 - b) Aldi baterako hilobiratze eskubidea
 - c) Hilobiratze eskubide arrunta

XI.- ARAU-HAUSTEAK

XII.- AZKEN XEDAPENAK

BARNE ARAUDIA SAN KRISTOBAL HILERRIA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Kokalekua

1. Artikulua.

San Kristobaleko Udal Hilerria izen bereko lekunean dago, Monterroneko parke publikoarekin mugakide diren lursailetan, Hirigune Historikoaren Mendebaldean kokaturiko mendiskaren gailurrean, Altamirako ibarbidearen eta Kanpazarrerako errepidearen sarrerako bailararen artean.

2. Ezaugarriak

2. Artikulua

Honakoek osatzen dute de:

SARRERA

Sarbideko arrapalaren alde bietara Hilerriaren funtzionamendurako oinarrizkoak diren eraikinak daude. 15 x 15 m-ko oinplano karratua duten bi eraikin dira.

Hauek ditu Ekialdean kokaturiko eraikinak: gorputegia, 4 gorpurentzako edukierakoa eta guztiz iragazkaitza, haren garbitasuna errazteko; publikoarentzako itxarongela, aurrekoaren aldamenean gorpuak zuzenean ikusi ahal izateko kristaleradun tabike baten bidez komunikaturik; autopsi gela; auzitegiko medikuaren bulegoa; kamara frigorifikoak eta komuna eta dutxa.

Mendebaldean kokaturiko eraikinean beste hauek ezarri ahal izango dira: administratzailearen bulegoa; komun publikoak eta Hilerriko langilegoarentzako behar diren aldagelak; horietaz gain interesgarritzat jotzen diren beste zerbitzu osagarri batzu ere bai.

Sarrerako arrapalaren ekialdean kokatutako edifikazioak kapera funtzioak ere beteko ditu, berorri dagokion fasea eraiki bitartean.

1.A FASEA ETA 1.B FASEA

1.A eta 1.B Faseak, klaustro tankerako lau eraikinek osatzen dituzte, zeharkako bi ardatz gurutzatuz lorturiko lau lurzatieta. Ekialde-Mendebaldeko ardatzak 1.A eta 1.B Faseak banatzen ditu.

Oin karratua, 32 x 32 m-ko kanpo-dimentsioa, 8 isuritako estalkia eta lorategidun 16 x 16 m-ko barruko patio bana dauzkate klaustroek. 174 hobikoa da klaustro bakoitzaren edukiera, bakoitzak kotapean 4 lurperaketarako lekua izan dezakeelarik. Klaustroetako barne paselekua lurrazpiko galeria baten estalkia da, eta berorrek hilobietara aurre aldetik sartzeko aukera ematen du.

Hegoaldean sarrerakoak baino dimentsio txikiagoko eraikin birekin egiten dute muga klaustro horiek; bata, hezurtegi eta gorpuzkien errausketarako, eta bestea, hezurtegi eta Hilerriko langilegoaren garaje-biltegirako.

Bi eraikin horiek Hilerri-Zerbitzuarekin komunikatzen dira. Bertan, 64 hobi eraikiko dira hasiera batean, aurreko kasuetan bezala bakoitzak 4 lurperaketarako lekua izango duelarik.

2 FASEA

Kapera eta 612 hobi, gainerakoek bezala, bakoitzak 4 lurperaketarako edukiera duelarik, zirkuluerdi mailakatuetan eratzen da.

Kaperaren oina, 12 x 12 m-ko harrizko zoladuradun plataforma baten gainean dauden 10 x 10 m-ko bi karratu berdinek osatzen dute. Sarrera dagoen lehen karratua kuboerdi bat da, zatirik handienean estali gabeko salaurre gisa barrukaldetik arkupetuta; bigarren karratua, Kapera bera, beste kuboerdi bat da, keramikazko lauxez estalitako hormigoizko piramide formadun estalki bati oinarri egiten diona, eta horren erpinak, material gardenekoa, Kaperan argi iraitzia sartzen uzten du.

3 FASEA

Duen azalerari esker, 844 hobi eraiki ahal dira; beraz, guztira 3.376 lurperaketa.

3. Jabegoa

3. Artikulua.

Arrasateko Udal Gorenaren jabegoa da, berak dauka horren erantzukizuna, eta legez egoki daitekeen eskuhartzea Gobernu-, Judizio- eta Osasun-aginteei uzten zaie.

4. Erantzukizunak

4. Artikulua.

Hauen erantzukizuna du Udal Gorenak:

- Eraikuntza eta urbanizazio-obra burutzea.
- Hilobien banaketa eta lagapena.
- Ehorzketa Erabiltzeko Eskubidearen lagapena.
- Hobiratu, hobitik atera eta lekuz aldatzeko baimenen lagapena.
- Hilobien erregistroa.
- Langileen izendapena eta enkaitzea.
- Tarifak zehaztea eta kobratzea.
- Zaintza, garbitasuna eta egokitzapena.
- Lorazaintza eta apainketa.
- Araudi hau betetzen dela zaintzea eta beharrezko bada zigortzea.
- Hilerria ixteko espedientearen tramitazioa.

5. Organo kudeatzailea

5. Artikulua.

Arrasateko Udal Gorenari dagokio hilerriaren zuzendaritza. Berak izendatuko du Organo Kudeatzailea, pertsonala zein kolegiatua, eta zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz arduratuko da.

II- ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA, "GORPUEN OSASUN-ZAINGOAREN ARAUDIA"REN ARABERA

1. Definizioak (Gorpua, gorpuzkia)

6. Artikulua.

Araudiaren arabera gorpuz hau ulertzen da: benetako heriotzaren ondorengo bost urteetako giza gorpuzkia, eta heriotza, Erregistro Zibilean inskribaturik agertzen den egun eta ordutik aurrera zenbatuko da. Gorpuzkiaz berriz, beste hau: materia organikoa deusezteko fenomenoaren eragina bukatu ondoren giza gorpuzetik geratzen dena, benetako heriotzaren ondorengo bost urteak igaro eta gero.

I Taldeko gorpua: 1) osasun-arriskuren bat dakarren heriotza arrazoia izan duen pertsonena, hala nola, kolera, nafarria, karbunkoa eta "Estatuko Buletin Ofizialean" Osasun-Zuzendaritza Orokorrak argitaratutako Ebazpenaren arabera zehazten direnak, eta 2) Produktu erradiaktiboek kutsaturiko Gorpua. II Taldeko Gorpua: I Taldean sartzen ez den beste edozein arrazoiengatik hildako pertsonena.

2. Hobiratzea

7. Artikulua.

Hobiratzea indarrean dauden lege xedapenen arabera egingo da. Ezinbestekoa da heriotza Erregistro Zibilean inskribatzea, ezbairik gabeko heriotza zantzuak daudela adierazten duen medikuaren ziurtagiriarekin. Horretarako Udal Gorenak jarritako bulegoetan egiaztatuko da agiri hori,

lurperaketarako baimena bertan luzatuko delarik. Lurperaketa ez da heriotza unetik hogeitalau ordu igaro arte gauzatuko.

8. Artikulua.

Gorpua eramaten duen hiletetarako enpresak nahiz pertsonak, legezko zein arauzko xedapenek eskatzen duten dokumentazioa eraman beharko du.

Eman beharreko zerbitzuez behar besteko aurrerapenarekin abisatuko zaio hilerriko Administrazioari.

9. Artikulua.

Beste hilerri batetik hona edo bertan egiten diren lekualdaketen ondorioz burutzen diren hobiraketetan, osasun- preskripzioak hartu beharko dira kontuan, Goi Aginteez nahiz Udaleko Osasun-Zerbitzuek legerian zehazten dituzten neurriak hartuz.

10. artikulua.

a) Gorpua ukitzen duten objektu guztiak, hala nola, izarak, burukoak, hil-oihalak eta abar, gorpuekin batera lurperatuko dira edo banatu egingo dira, erraustu edo erre eta gero.

b) Lurperatze guztietan osasun neurri egokiak hartu behar dira, gorpukia behar bezala desegin dadin bermatzeko, eta hilobian sartuko dira hartarako diren produktuak.

11. Artikulua.

Giltzazain-Lurperatzailearena da lurperaketa-kontuetan indarrean dauden xedapenak betetzeko eta betearazteko erantzukizuna.

12. Artikulua.

Ordutegi bat egongo da ehorzketa-zerbitzuetarako, Organo Kudeatzaileak zehaztuko duena.

13. Artikulua.

Inola ere ezingo da gorpu bat beste baten gorpuzkinekin batera lurperatu; hala ere, lur eman eta derrigorrezko epea iragan ondoren, sepultura iraunkorren kontzesiodunek gorpuzkinak borondatez desobitu eta sepulturan aurreikusitako espazioan edo erraustegiaren baruan hauts kutxa batetan jarri ahal izango dituzte, eta horrela sepultura lur emate berri bat jasotzeko moduan geldituko da.

14. Artikulua.

Hobiratzeko ekartzen diren gorpu guztiak ehortziko dira, beti ere, legezko tramiteak bete izan badira. Behartsuek, lurperaketa doan izateko eskubidea dute, heriotza gertatu deneko Udalaren kontura eta Foru Aldundiaren menpe edo tutoretzapean dagoen toki batean gertatzen bada, administrazio honen betebeharrak subsidiarioa izango da hilkutxa ematea.

15. Artikulua.

Fabrikak eginiko hilobietan burutuko dira lurperaketak. Horien baldintzak Gorpuen Osasun-Zaingoaren Araudiak zehazten dituenak izango dira.

3. Hobitik ateratzea eta berriro hobiratzea

16. Artikulua.

Gorpuak eta gorpuzkiak hobitik atera daitezke Hilerrian bertan lekuz aldatu eta berriro hobiratzeko edota beste batera eramateko. Bi kasuetan, arauzko baimena behar izango da eta indarrean dauden Gorpuen Osasun-Zaingoaren gainerako arauak beteko dira, pertsonen segurtasunerako ahal diren neurri guztiak hartuz.

17. Artikulua.

Hobitik ateratzeko baimena, bai lekuz aldatu behar denean bai bertan utzi behar denean, Osakidetzari eskatuko zaio; eskaerarekin batera, eta hobitik atera nahi den gorpuaren lurperaketa-agiria aurkeztu beharko da.

Udal baimena gehituko zaio lehen aipaturiko baimenari.

18. Artikulua.

Judizioz hobitik ateratzen diren kasuak aurreko bi artikuluetan xedatutakoaz kanpo geratzen dira, kasu horretan bertan adierazitakoari lotuko zaio.

19. Artikulua.

Lurperatuta 10 urte egin ez duten gorpu eta gorpuzkiak hobitik ateratzen direnean, beharrezko diren osasun-neurriak hartu beharko dira kontuan.

20. Artikulua.

II Taldeko gorpuen gorpuzkiak inongo osasun-interbentziorik gabe aldatu ahal izango dira, beti ere, dagokion agintearen baimenarekin.

21. Artikulua

Hilobitik ateratzea, gainerako ehorzketa-zerbitzuak bezala, horretarako ezarritako ordutegiaren barruan egingo da.

4. Gorpuzkien garbiketa

22. Artikulua.

Hezurtegitan kontserbatu edo erraustearren hilobietan egiten diren gorpuzkinen garbiketa edo hustuketa, beraietan azken ehorzketa egin eta 5 urteetatik aurrera burutu beharko da. Hilobietan dauden zur, arropa, hiloihal, etabar kiskali edo errautsi beharko dira. Gorpuzkinak, errauts-kutxa batean sartu ahal izango dira sepulturan aurrikusitako espazioan nahiz erraustegian, edo bestela errautsi egingo dira.

23. Artikulua.

Hobitik ateratzea, gorpuzkien leku-aldaketa zein hilobien garbiketa, lagapen emaileen edo hartzaileen aurrean egin ahal izango da, beti ere, ezarritako ordutegiaren barruan eta garaiz hitzartzen bada. Beharrezkoa izango da Osakidetzaren baimena eta baita Udalarena ere.

III- ZERBITZU OSAGARRIAK

1. Gorputegia

24. Artikulua.

2. Atalean azaldu den bezala, bi gelak osatzen dute gorputegia: bata, 4 gorpu batera sartzen den biltegirako aurrikusten da, eta bestea, publikoarentzako aurrekoarekin kristalera baten bidez komunikatuta.

25. Artikulua.

Erabilerari dagokionez, gorpua jaiegunetan, ixteko orduaren ondoren zein hiletetarako etxearen baldintzek edo beste izaera batekoek horrela eskatzen dutenean sartzen den kasuetarako aurrikusten da gorputegia. Debekatuta dago gorputegian dauden bitartean, gorpuei beila egitea.

26. Artikulua.

Debekatuta dago gorputegian agindu judizialez sartzen diren gorpuak manipulatzeko eta arakatzea, baldin

eta bere sarrera agindu zuen Agintearen baimenik ez badago. Behar bezalako baimenik ez duten guztiek debekatuta daukate gorputegian sartzea.

27. Artikulua.

Giltzazain-Lurperatzaileari dagokio gorpuei eta gorpuzkiei zor zaien errespetua eta babesazaintzea.

2. Autopsi gela

28. Artikulua.

Udaleko Osasun-Aginteak zehaztutako baldintzak eta beharkizunak beteko ditu autopsi gelak.

3. Kolonbarioa

29. Artikulua.

Klaustroen Inguruko hegoaldean dauden bi eraikinak izango dira kolunbarioak, eta bertan gorpuzkietarako nitxo-hezurtegiak daude.

4. Kapera

30. Artikulua.

Kaperaren oina, 12 x 12 m-ko harrizko zoladuradun plataforma baten gainean dauden 10 x 10 m-ko bi karratu berdinek osatzen dute. Sarrera dagoen lehen karratua kuboerdi bat da, zatirik handienean estali gabeko salaurre gisa barruko aldetik arkupetuta; bigarren karratua, Kapera bera, beste kuboerdi bat da, keramikazko lauzez estalitako hormigoizko piramide formadun estalki bati oinarri egiten diona eta, horren erpinak, material gardenekoa, Kaperan argi iraitzia sartzen uzten du.

IV - BARNE-ARAUDIA

1. Zuzendaritza eta administrazioa

31. Artikulua.

Udal Gorenak aukeratutako Organo Kudeatzailea izango da lurperatzeko eskubiderako, hobitik ateratzeko eta Hilerrian egiten diren beste zerbitzuetarako diru-bilketaz eta administrazioaz arduratuko dena: beharrezko diren burokrasia lanak egiteko ahalmena izango du eta liburuaren zaintza bere kargu egongo da, Giltzazain-Lurperatzaileak eraman beharrekoarena ezik.

32. Artikulua.

Lehen aipaturiko Organu Kudeatzailearen zuzendaritzapean, Hilerriko zerbitzuen liburu hauek eramango dira:

- Lurperatu edota Hobitik ateratzen direnei buruzko erregistro Orokorreko liburua. Datu hauek azalduko dira liburu horretan: Agindu-zenbakia; hildakoaren izen-deiturak; lurperatze-eguna; hildakoaren jaioterria; sexua; adina; egoera zibila; heriotzaren arrazoia; hilobi-zenbakia eta bertako ordenaletra; hobiratze iraunkorra, aldi batekoa edo amankomuna; hilkutxaren materiala; irabazitako eskubideak, eta dagokionean, hobitik atera zeneko eguna eta gorpuren edo gorpuzkien egoera. (Berdin beste Hilerrri batean zein bertako beste alde batean izan bada).

- Lagapen iraunkorrerako baimenen liburu-taloitegia.

- Aldi baterako lagapenerako baimenen liburu-taloitegia.

- Hilerriko hainbat erabilera burutzeko baimenen liburu-taloitegia (Hezurtegia).

- Hilobi bakoitzaren datuak apuntatuko diren fitxak gordetzeko Hilerriko fitxategi Nagusia: lagapenen zerrenda, egilespenaren egunarekin; lagapedunen izen-deiturak eta hilobiak jasaten dituen aldaketak, bai lurperatzeari bai beste arlo batzuei dagozkienez.

- Liburuetan nahiz taloitegietan jasoko den informazioak administrazio-antolaketa bati jarraituko dio eta interesatzen den datua zehazki aurkitzeko eta estatistikak egiteko aukera eman beharko du.

- Informatika-teknikak erabiliko dira, beharrezko paperez gain.
- Urtero, egiten diren zerbitzuei buruzko Memoria bat aurkeztuko da

33. Artikulua.

Hauxe dagokio aukeratutako Organo Kudeatzaileari:

- Zerbitzua eraginkorragoa egiteko, Giltzazain-Lurperatzaileari beharrezko jarraipideak ematea, eta Udal, Gobernu eta Osasun Agintariek zein bere eskumen edo eskuduntzako arloei dagozkien beste batzuk xedatutakoa igortzea.
- Hobiratu, hobitik atera zein lekuz aldatzeko Udal baimena egitea, aurrez Epaitegiaren edo Erregistro Zibilaren lizentzia nahiz dagokion Aginte Judizialaren Agindua, heriotza bortizkeriaren ondorio bada.
- Hilerriko Giltzazain-Lurperatzailearen kargu utzitako zerbitzu eta eginkizunak kontrolatzea.

2. Jakinarazpenak

34. Artikulua.

Aldi baterako lagapenen mugaegunak hiru hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko dira. Lurperatze iraunkorrera edo Hezurtegira lekuz aldatzea eskatu ezean, errautsi egingo dira gorpuzkiak.

3. Epeak

35. Artikulua.

Aldi baterako ehorzketa-eskubidea, horretarako baimena eman zenetik hasi eta 10 urteko lagapenaren ondoren amaitzen da.

V - EHORZKETA-ESKUBIDEAK

36. Artikulua.

Udal Hilerraren barruan sepultura oinarrizko mota bat dago, lurzorua sestraren gainean eraikia, hilobien arremate losak gehienez ere 0,60 m. irtengo direlarik Hilerriko plataformatik. Hilobi bakoitzak kota azpiko lau ehorzketa barne hartzeko aukera ematen du.

37. Artikulua.

Hilobiei dagokienean, Udal Gorenak Ehorzketa Erabiltzeko Eskubidea lagatzen du; Eskubide horrek Hilerriko hilobien erabilera bakarrik hartzen du barne. Hiru aukera daude lagapenaren denboraren arabera:

1. Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Iraunkorra.
2. Ehorzketa Erabiltzeko Aldi baterako Eskubidea.
3. Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Amankomuna.

38. Artikulua.

Lurperatzeko eskubidearen lagapenarekin, iraunkorra, aldi baterakoa zein amankomuna izan, ezingo da komertziatu; Udal Gorenak gorpua zein gorpuk, hilobian iraunkorki edo hamar nahiz sei urtez egotea errespetatzeko obligazioa duela esan nahi du horrek. Horregatik, familiak bertan bera utziriko hilobi iraunkor guztiak, Udallerriaren eskuetara bueltatuko dira.

39. Artikulua.

Hilobi bat erabiltzeko eskubide mota eta helburua edozein dela ere, pertsona bakar baten izenean egongo da.

1. Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Iraunkorra

40. Artikulua.

Udal Eraikuntzako fabrikek egindako hobiak, Araudi honen arabera hilobi deituko direnak, era iraunkorrean lagako dira interesatuek eskaturik.

41. Artikulua.

Udalak, lurperaketa egiteko, hilobi jakin bat erabiltzeko eskubidea egilesten dio lagapendunari, Hilerria erabiliko den denbora guztirako; lagapendunek ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Hilerria, gertatuak gertatu, itxi egiten denean; eta ehorzketa-erabilera indarrean dagoen araudiaren pean geratzen da.

42. Artikulua.

Udalak, Hilerria berritzearren edo klausura-erabakiari ez dagokion beste edozein arrazoiengatik, hilobi hauetako batzuk kendu beharko balitu, beste bat emango lioke lagapendunari.

43. Artikulua.

Iraunkorki lagatutako ehorzketetan soilik lau gorpu lurperatu ahal izango dira, hala ere, legezko epea bukatu ondoren kontzesiodunek gorpuzkinak errautsi eta, behin errauts kutxan sartuta, sepulturaren barruan aurrikusitako espazioan edo hezurtegiaren edifizioan jarri ahal izango dituzte. Sepultura ehorzketa berriak egiteko moduan geldituko da baldintza berberetan.

44. Artikulua.

Lagapendunek estalkia alda dezakete, beti ere, aurrikusitako neurrietara mugatzen badira eta materialek ezarritako ezaugarriak badituzte. Hilarriak ere eskatzen diren bereizgarriak izan beharko ditu.

45. artikulua.

Zeharo debekatzen dira hilobiak saltzea eta orokorrean, irabazizko jarduerak, 60.b) artikuluan jasota dagoen bizidunen eskualdaketa izan ezik.

46. Artikulua.

Ez da hobiratu edo hobitik ateratzeko baimenik emango, erabiltzeko eskubidearen titularrak sinatutako beharrezko baimena aurkezten ez bada, hobiratu behar den gorpua hilobiaren titularrarena berarena denean ezik.

47. Artikulua.

Hilobiak erabiltzeko eskubidea duen titularren bete-beharra da higiena, apainketa eta kontserbazioa zaintzea.

48. Artikulua.

Hilobia bertan bera uztea hau izango da: hilerrian emandako zerbitzuengatik eta beste erabilera berezi batzuegatik Ordenantzan ezarritako ordaindu beharreko tasa eta eskubideak ez ordaintzea, bide exekutibotik kobratzeko fondorik ez dagoela aldez aurretik ziurtatu ondoren. Bertan bera uzteko aitortpenak, horretarako izendaturiko Organo Kudeatzaileak eskaturiko administrazio-espeditentea behar du. Espediente horrek, helbidea ezaguna duen lagapendunari egingo zaion zitazioa edukiko du; helbidea ezezaguna bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaraturiko ediktu baten bidez egingo zaio zitazioa. Titularrari, bere senideei edo zordunei, dagokien zorra ordaintzeko hogeitahamar eguneko epea ematen zaie; hala izan ezean, hilobia erabiltzeko eskubidea amaitutzat joko da.

49. Artikulua.

Bertan bera uztegatik edota ez zaintzeagatik faltan eror daiteke, berarenganako eskubideak oro gal daitezkeelarik.

2. Ehorzketa Erabiltzeko Aldi baterako Eskubidea

50. Artikulua.

Hilobiak aldi batez erabiltzeko emango den epe bakarra hamar urtekoa da.

51. Artikulua.

10 urteko hilobien lagapena ezingo da luzatu eta epea betetzean gorpuzkiak bildu eta erraustu egingo dira, lagapenaren epemuga baino hiru hilabete lehenago lurperaketa iraunkorra eskatu edo hezurtegiaren zerbitzua kontratatzen ez bada behintzat.

3. Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Amankomuna

52. Artikulua.

Lurperaketa amankomunen lagapenek, gehienez sei urteko iraupena izango dute eta doan izango dira.

53. Artikulua.

Epea amaitzean, gorpuzkiak hobitik atera eta erraustu egingo dira senideei aurrez abisatu gabe.

4. Adjudikazioak

54. Artikulua.

Hilobi baten lagapen iraunkorra, aukeratutako Organo Kudeatzailearengana joango den eskabide-orri baten bidez egingo da eta horrek, beharrezkotzat jotzen dituen informeak bildu eta gero, Udal Gorenari aurkeztuko dio erabakia har dezan.

55. Artikulua.

Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Iraunkorren eskaerak, Udal Gorenak horretarako aukeratu dituen lekuetan aurkeztuko dira.

56. Artikulua.

Ehorzketa Erabiltzeko Aldi baterako Eskubidea eskatzeko tramitea, dokumentazio egokia aurkeztu eta gero, horretarako aukeratutako lekuetan tramite burokratikoak egitera mugatuko da.

57. Artikulua.

Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Amankomunaren eskaerak, Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Iraunkorren tramitazio bera jarraituko du.

5. Tasak

58. Artikulua.

Tasak sortuko dituzte ehorzketa eskubideek eta Hilerrian emandako zerbitzu guztiek, Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Amankomunak ezik. Tasa horiek lehen aipatutako lekuetan ordainduko dira, indarrean dagoen Udal Ordenantzari jarraiki.

Hilobi iraunkorrei dagozkien mantenimendurako urteko ordainketak, urtealdiaren haseran egingo dira

VI- TRANSMISIOAK

1. Oinordetza

59. Artikulua.

Hilobien lagapen iraunkorren titularitatea, gorpuak edota gorpuzkiak eduki ala ez eduki, eskualdatu daiteke oinordetzaz edo herentziaz eta intervivos edo bizidunen eskualdaketaz, udalaren baimena izan eta gero.

60. Artikulua.

- a) Lagapenduna hiltzean, lagapenaren titularitatea, testamentuaren xedapenetan jarritako oinordeak edo legatudunak hartuko du, eta testamentu egileak bi pertsona edo gehiago aukeratzen baditu, hilobia erabiltzeko eskubidea adinez nagusienari transmitituko zaio. Oinorderik edo legatudunik izendaturik ez badago, nahitaezko oinordeek haien artetik eskubidea hartuko duena aukeratuko dute eta udal administrazioan aurkeztu beharreko titularitate-aldaketa eskaerarekin batera, nahitaezko oinordeen adostasuna adierazten den dokumentu bat eraman. Hilobia erabiltzeko eskubidea nori transmititzeari buruz guztizko adostasunik ez badago, titularitate nahitaezko oinordeetan adinez nagusiena denak hartuko du eta nahitaezko oinorderik ez egotekotan, Kode Zibileko 947. eta 954. ataletan zehaztutako senitartekorik zaharrenak, bertan ezarritako ordenari jarraiki.
- b) Hilobiaren lagapen iraunkor baten titularrak eskualdatu dezake beste partikular batentzat, udalaren baimena izan eta gero. Eskualdaketa izanez gero kostubidezkoa, ez da izango kasu batean ere Udalak ordenantza fiskaletan onartuta duen tarifa baino handiagoa, eta Udalak ez badauka lagapen iraunkorrik eta, hortaz, ez badu onarturik tasa hori ordenantza fiskaletan, eskualdaketa kopurua ez da izango ordenantza fiskaletan jasota datorren azken tasa eguneratzetik ateratako kopurua baino handiagoa, Autonomia Erkidegoko «Kontsumorako Prezioen Indizea»ren arabera. Lagapen iraunkorraren titularrak eskualdaketa eskaera aurkeztuko du, eta agertuko ditu lagapendun partikularren datuak, eskualdaketa horren truke ordaindu beharreko kopurua.

VII- ERREGISTROA ETA DOKUMENTAZIOA

61. Artikulua.

II Taldeko gorpuen hobiraketan, Heriotza Agiria eta lurperatzeko Baimena beharko dira. Datu hauekin erregistratuko da hobiraketa: hildakoaren izen-deiturak; lurperatze-eguna; hildakoaren jaioterria; sexua; adina; egoera zibila; heriotzaren arrazoia; hilobiaren zenbakia; hilobiari dagokion ordena-letra; hilobi mota (iraunkorra, behin-behinekoa eta amankomuna); hilkutxaren material-mota; irabazitako eskubideak.

62. Artikulua.

II Taldeko gorpuen hobiraketan, datu hauek behar dira:

- a) Hilerrian bertan berriro berehala hobiratzeko: Probintziako Osasun-Ordezkararen ziurtagiria eta lurperatzeko instantzia-agiria, esku hartzen duen Probintziako Osasun-Ordezkararen eritziz, hilkutxak bete beharreko baldintzak betetzen ez dituenean, aldatu egingo da.
- b) Lekuz aldatzeko: Probintziako Osasun-Zuzendaritzaren baimena eta lurperatzeko instantzia-agiria. Hilkutxa lekuz aldatzekoa izango da.
- Bi kasuetan, erregistroan hobitiek ateratze-eguna eta gorpuren edo gorpuzkien egoera berria jasoko dira.
- c) Errausteko: aurreko bi puntuetatik bateko baldintzak bete beharko dira, leku aldaketarik dagoen ala ez kontuan hartuta.

63. Artikulua.

I Taldeko gorpuek, aurreko bi artikuluetako baldintzak eta eskuduntza duen Osasun-Agintearen aginduak bete beharko dituzte.

VIII - HILERRIKO LANGILEGOA

1. Giltzazain-Lurperatzailea

64. Artikulua.

Hilerriko zerbitzuak gobernatu, kontserbatu, zaindu eta emateko Giltzazain-Lurperatzaile bat eta beste

laguntzaile bat edo gehiago izango dira. Hilerriko udal langilegoaren izendapena, uztailearen 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen arauera egingo da, eta indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte, eta bereziki, araudi honek zehazten dituenak.

65. Artikulua.

Hauek izango dira Giltzazain-Lurperatzaileari dagozkion betebeharrak:

- a) Gorpuen harrera egitean bertan egotea eta Gorputegian ezartzea edo berehala hobiratzea.
- b) Edozein hobiraketa egin aurretik, senide edo ordezkariari, dagozkien Erregistro Zibilaren lizentzia edo baimena eskatzea; gainera, Udal baimena. Hildakoak heriotza bortitza izan badu, Partiduko Epailearen lurperatzeko agindua eskatuko du Giltzazain-Lurperatzaileak. Ez da baimenik emango aipaturiko dokumentu gabe lurperaketarik egiteko.
- c) Ez du baimenik emango, dagokion Agintearen agindurik eta Udal baimenik gabe, gorpua hilobitik ateratzeko; eta halaber, heriotza bortitza izan duenaren gorpua hilobitik ateratzeko, Aginte Judizialaren agindua beharko du.
- d) Gorpua edo gorpuzkiak, beharrezko baimenaz hilobitik atera behar direnean, ez du utziko hilkutxan leudekeen objektuak, horretarako baimenik ez duen pertsonak jasotzen. Giltzazain-Lurperatzailearen hutsegite larria izango litzateke gorpuzkiak, jantziak, hilkutxa, eta hilerrian lurperaketetan leudekeen objektuak desagertzea.
- e) Higiene-arauak beteko ditu une guztietan, eta ikusten dituen hutsegiteen berri emango die administrazioko zerbitzuei puntualki. Halaber, haren ardura izango da Kapera, Gorputegia eta gainontzeko dependentzien garbitasuna eta lursaila, landareak eta zuhaiztia egoera onean mantentzea.
- f) Bisitari eta langilegoaren portaeraren erantzunkizuna izango du, eta eskuduntza hori duen aginteengana jo ahal izango du beharrezko ikusten duenean.
- g) Erregistro-liburu bat izango du hobiratutakoaren deitura, izen-deiturak, ehorzketa-eguna, hilobiaren zenbakia eta ordenari dagokion zenbakiarekin; gainera, hilkutxa zer materialez eraikia dagoen ere agertu behar da. Informazio guztia ez balego, haren ardura izango da falta den informazioa senide edo ordezkariengan-dik jasotzea.
- k) Fakultatiboei lagunduko die, autopsia egitean esaten diotena egiteko, haien aginduetara egonda.

66. Artikulua.

Hilerraren antolaketa eta funtzionamenduari dagokienean, Organo Kudeatzailearen menpe egongo da Giltzazain-Lurperatzailea.

2. Giltzazain-Lurperatzailearen Laguntzaileak

67. Artikulua.

Giltzazain-Lurperatzaileari Hilerriko lan guztiak egiten laguntzeko eta gaixo egon, baimena izan edo beste arrazoiren bat duelako bera ez dagoenean ordezkatzeko, haren aginduetara egongo den laguntzaile bat edo gehiago izendatu ahal izango dira.

IX - HILETETARAKO ENPRESAK

1. Jarduera-eremua

68. Artikulua.

Udal Aginteari dagokio hiletetarako enpresa bat jartzeko baimena ematea, baina horrek, aurretik Osakidetza hiletetarako enpresen aldeko informerik gabe ezin dio baimenik eman.

69. Artikulua.

Udalak izendaturiko dependentzietan hildakoaren senide edo ordezkariari interesatzen zaien

dokumentazioa gestionatzeko, legez jarritako Hiletetarako Enpresen nortasuna onetsiko du Udalak. Baina, dokumentu hori senide edo ordezkarien izenean luzatuko da eta botere edo baimen berezia duten espedienteetan azaltzeko izango da.

X - HILARRIAK

1. Ezaugarriak

70. Artikulua.

1). Ezaugarri hauek dituzte Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Iraunkorra duten hilarriek: estalkia, 2,10 x 0,90 x 0,10 m; oinarria, 0,30 x 0,30 x 0,78 m; estela, 1,00 x 0,78 x 0,20 m; eraikuntzarako materiala hormigoi mutxardatua izango da. Hilobiaren barne dago estalkia, estela lagapendunaren kontura geratzen delarik.

2). Lagapendunek, nahi izanez gero, beste bategatik aldatu ahal izango dute estalkia, neurriak errespetatuz eta harria erabiliz. Harrizkoa izango da estela eta artikulu honetako lehen puntuan deskribaturiko neurri berak edo txikiagoak izango ditu.

71. Artikulua.

71.1) Hauek izango dira ehorzketa erabiltzeko aldi baterako eskubideko hilarriak: Tapa 2,20x0,95x0,08 m. eta kareharrizkoa; Estela 0,45x0,54x0,02 m. eta harrizko edozein materialetakoa.

71.2) Udalak jarriko ditu Ehorzketa Erabiltzeko aldi baterako eskubideko hilobietako tapak, eta haien jabea izango da Udala; aldi baterako ehorzketen lagapen-emaleek, Ordenantza Fiskalean hartarako etarrita dagoen diru-kopurua ordaindu beharko dutelarik

71.3) Jabeek jarri beharko dituzte hilobietako estelak, eta esteleki dagokien materialari buruz, Araudi honetako 71.1 artikuluan adierazitakoara egokitu beharko dira estelak.

72. Artikulua.

Ehorzketa Erabiltzeko Eskubide Amankomuna duten hilarriek, 70. artikuluko lehen puntuan deskribaturiko ezaugarriak izango dituzte, udal erabilera dutela adierazteko balio duen inskripzioa baino ez dutelarik.

XI - ARAU-HAUSTEAK

73. Artikulua.

Araudi honetan eta uztailaren 20ko 2263/1974 Hilotzen Osasun-Zaingoari buruzko Araudian jasotako xedapenak ez betetzeak Arau-Haustetzat jo eta zigortu egingo ditu Udalak, egin daitezkeen arau-hausteen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoei kalterik egin gabe.

74. Artikulua.

Toki-Araubidearen Legearen Testu Bateratuaren 59. artikulua arabera, baimenik gabe ipinitako elementuak isuna jartzeko arrazoi bilakatuko dira, eta kendu egingo da arauzko xedapenak betetzen ez dituenetan.

XII-AZKEN XEDAPENAK

Lehen.- Araudi honetan aurrikusi ez diren kasuetan, uztailaren 20ko 2263/74 Dekretuz onetsitako "Hilotzen Osasun-Zaingoa"ri buruzko araudiari eta aplikagarriak diren gainontzeko Xedapenetan erabakitakoari jarraituko zaizkio.

Bigarrena.- Udalak ahalmena du araudi hau garatu eta aplikatu behar diren hedapenak emateko.

Hirugarrena.- Araudi hau indarrean jartzen den unetik, indargabeturik geratzen dira alde zuzenak daudenak.